

Mondragon Unibertsitateko ikasle atzerritarrei harrera

2013/09/27

Babeleko Dorre berezi baten antzera, non hizkuntza, herrialde eta pertsona bakoitzak bere lekua aurkitzen duen. Ordu batzuez, Mondragon Unibertsitatearen Goi Eskola Politeknikoko kanpua hizkuntzen eta aurpegi berrien topagune bilakatu zen, aurten abian jarriko den prestakuntza-aroari ekiteko prest heldu baitira atzerriko ikasleak. Norbere hizkuntzaren gainetik, ingelesa izan zen nagusi ekitaldian eta baita jendearen arteko elkarrizketetan ere.

Izan ere, Mondragon Unibertsitateko 105 ikasle atzerritar elkartu baitziren unibertsitateak beraientzat antolatu zuen harrera- eta ongietorri-ekitaldian. Unibertsitatearen izaera eta duela 45 urte hasi zuen nazioarteko ibilbidea ezagutzeko aukera izan zuten ikasleek. Gainera, ikasleek elkar ezagutzeko parada izan zuten, eta horrela, euskal unibertsitatean emango duten prestakuntza-aldian harremanetan izan daitezke.

105 ikasle hauek, Mondragon Unibertsitatea osatzen duten lau campusetan daude banatuta eta ERASMUS, LAMENITEC edo Europar Batasunetik kanpo dauden beste porgrama batzuen eskutik etorri dira hona.

Ikasle hauen jatorrizko herrialdeak, besteak-beste ondokoak dira: Letoria, Holanda, Finlandia, Mexiko, Hungaria, Alemania, Kanada, Belgika, Turkia, Alemania, Kolonbia, El Salvador, Guatemala, Honduras, Nikaragua, Polonia, Andorra, Japonia, Portugal, Frantzia, Italia, Errumania, Txina, Peru eta Benezuela.

